

MOTZAK MINTXETAKO IGERILEKUAK BIHAR, EKAINAK 7, IREKIKO DIRA
GEHIGARRIA TXIKIBARREN · KULTURA TRISKA DANTZA TALDEAREN JAIALDIA

BARREn

ASTEKARIA

ELGOIBARRKO ASTEKARIA · 2003ko ekainaren 6a/XI. urtea/448. zkia



EKAINAREN 6TIK 8RA ELGOIBARREN

XVIII. Galiziako Eguna Euskadin

ikastaro (aThh0.11Z [WZRff]ilean
izen eff...aren 20a baino lehen



ILS
HIZKUNTZ
SOLUZIOAK

alemanez,
frantsesez eta
ingelesez
(maila guztiak)

uztairen
1etik 24ra
(!joi/.z)/. eta
afrai::3,11(P)/.)

63 ordu
(45 ordu taldekako
klasaz)1.:111 eta
113 median)

informazioa:
tel. 943 744040
faxa 943 741654
e-mail: ils@ils.es



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

Arragueta okindegia

Galiziako dietan olagarroa itsasoak ematen du,
ardoa lurrak eta ogia...

Galiziako ogia Arragueta
ematen dizur:

Ekainak 6, 7 eta 8
Galiziako Eguna Euskadin
Galiziako ogia Elgoibarren

Arragueta okindegia,
betiko ogia, gaurko ogia.



San Bartolome 6

Bernardo Ezenarro 1

40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA
ULTUR ELKARTEA



20 AUBIXAN bat, bi, hiru,

Horrela hasten da Antton Aranburuk Aubixarako asmatu zuen kantua. Marrazki bizidunen musika lagun hartuta, hamabost arte kontatzen eta kantatzen zuten Aubixara joaten ziren umeek eta begiraleek. Izan ere, hasierako urteetan 15 egun pasatzera joaten zien umeak Aubixara.

1973an hasi ziren ikastolako umeak Aubixara igotzen. Baserrira hutsik zegoen eta Elgoibarko Izarrak alokatzea erabaki zuen udaleku moduan aprobeztatzeko. Helburua ikastolatik kanpo ere umei euskaraz jarduteko eta bizitzeko espazioak eskaintzea zen. Euskara etxe batzuetan eta ikastolan bakarrik entzuten zen, eta esparru berriak irabazi nahi ziren euskararentzat. Eta aisialdia esparru garrantzitsua zela erabaki zuten Elgoibarko Izarrakoek.

Lan handia izan zen Aubixa udaleku moduan prestatzea. Hamaika lan egin zen eta milaka kilo kartoi bildu eta saldu zituzten orduko gurasoek Aubixa behar bezala prestatzeko.

Aurretik esan bezala, Aubixa ikastolako umeentzat zen. Begirale moduan, berriz, ikastolako irakasleak eta herriko gazteak joaten ziren. Denak ere borondatezko lana egitera. Sebas Larrañaga izan zen estreinako txandan joan zen begiraleetako bat. Berak esan digunez, "Aubixako esperientzia oso erabakigarria izan zan nere etorkizunerako. Aubixara magisteritza ikasten hasi aurretik joan nitzan, eta bertan ikusi eta sentitu naban ume eta gaztetxoekin lan egitea zala nere nahia".

73an hasitako historiak segida du oraindik ere. Elgoibarko Izarrak udalekuak antolatzen ditu Aubixan, baina gaur egun herriko haur guztiei zabalduko eskaintza da.

Sebas Larrañaga, Mari Juli Conde eta Imanol Larrañaga

iritzia



Mundua norabide bakarretik ikusita

Urteak 365 egusenti ditu eta bakoitzean mundua eta gu geu, gizartea alegia, modu eta arazo desberdinekin esnatzen gera.

Arazo horietako bat munduko politikari murrizt eta lelo batzuek (G-8) mundua bera ze egoeratan uzten ari diren dugu. Onartezina da zortzi buruzagiren artean munduko arauak eta jokabideak erabakitzea. Ez dute inongo eskubiderik hausnartzeko zein den ona edo txarra, edo zein komeni zaien edo ez. Hori, arrazakeri hutsa da eta beraiek munduko demokrazia aldarrikatzen badute, azkenean, atera daitekeen iritzi bakarria hipokritia hutsak direla da.

Ezin dugu onartu mundu oligarkiko bat. Indibiduo bakoitzaren askatasuna aldarrikatu behar dugu eta ez beraiek proposatzen duten holding finantzieroa. Ze azken finean, hori nahi dute, diru eta diru gehiago eta ekonomi huts hauek beste herrien pobrezia ekartzen ditu.

Adibide gisa IRAKeko gatazka dugu. AEBak Irakeko petroleoa nahi zuen bere nahi kapitalistaren preso zelarik. Eta nahiz mundu osoak protesta egin, Bush-ek eta bere alproja koadrilak nahi izan duten gutzia egin dute. Eta horrelako mundu bat ez zaigu komeni, pentsamendu bakarreko mundu bat. Ildo hau jarraituz, lurra estatu bakarreko mundua bihurtuko litzateke.

Beraz, jarrera hauek galerazi behar ditugu, behin eta berriro kontra eginez. Kalteak jasaten ditugunean agian beranduegi da kexatzeko eta irtenbiderik ez dugu edukiko.

Jokin Martinez

KeXak	5
MOtZ MOtZ	8
gehigarria	13
kiRoLAK	21
aGenda	24

ZENBAT HORRELAKEO BARREN-EN

Gaur 15 egun, Jon Garateri egin elkarrizketa bat irakurri nuen Barrenen, Gaztetxean egitekoa zen bertso txapelketaren harira. Aste bete beranduago ezin izan nuen elkarrizketa hark sortu jakinmina ase; ez behintzat gure Barren honetan, zorionez egun berean, non eta Euskadi Irratian luze eta zabal ihardun baitzuten gai honen inguruan. Berrogei lagun izan ginen afaltzen, beste hainbeste ere bai saioan, Barrenen aritzen direnak tartean.

Ez nuen espero Gaztetxeko sukaldariek eskaini afari beroari buruzko laudoriorik, ez giroarenik; hango berri izan nahi nuen besterik gabe, bertsolarien izenak erreparatu, beste finalisten berri jakin...

Saioa apala izan zen, urduria, kaskarra une batzuetan, txapelketakoa finean, baina bertso saio, zine emanaldi, kantaldi kaskar askoak ikusiak gara herri honetan, eta haien berri eman duten makina bat kronika puztutako irakurriak. Ezaguna egingo zaizue akaso "Baina oso giro polita bizi izan zen" edo gisa honetako bukaera. Kontua ez da zuenean ohikoa den Autobonboa denei aplikatzea (oso itsusi ematen du), herrian gertatzen denaren berri ematea baizik.

Bide batez, zoriendu nahi ditut saioaren antolatzaileak, bertso afariarena, ohitura bihurtzen ari direlako Gaztetxean.

A.E.E. 15386972

IRUDI BATEK, MILA HITZ BAINO...

Elgoibarko gazte koadrila bat gara eta orain pare bat aste, gure etxeetan jaso genuen hauteskunde propagandan agertutako argazki bati buruz iritzia emateko idazten dugu.

Ez zaigu bidezkoa iruditzen gu azaltzen garen irudi hori erabili izana alderdi politiko baten propagandan, aurrez iritzia eskatu gabe.

Irainduta sentitu gara gure buruak liburuxka horretan ikustean eta pertsonak azaltzen diren argazki bakarra geurea delako (alderdikideenak kontuan hartu gabe).

Honekin batera zera aholkatu nahiko genieke: gaztediaren alde benetan lan egin dezatela, arazoei erantzunak emanez (musika taldeentzat lokalak, kultur, kirol... ekintzetan laguntza...).

Honela, hurrengo hauteskundeetako propagandan jaietako ekintza puntualez gain, gaztediaren alde antolatutako beste zerbait izango lukete erakusteko.

Besterik gabe agurtzen gara.

A.G.44172597
I.O. 72582987
A.J. 72312882

Urruzunoren begi ezkutua

Neskatilaren malkoak



Ile beltzaraneke neskatila leihotik begira dago. Begirada urrunean galdua, aitarekin akordatzen da. Berarekin egon nahiko luke, baina ezin du. Preso eraman zuten botereko ultranazionalista espainiarrek, euskaldunon egunkaria bidegabeki itxi zuten demokrata horiek, Udalbiltzaren kide izateagatik. Horregatik bakarrik. Euskal Herriaren alde jarduteagatik. Orduetik egun andana igaro da baina oraindik "aitatxo" ez da itzuli etxera. Neskatilaren begi tristeek bi malko isuritzen dituzte. Tarteka goibel jartzen da, hain denez handia sentitzen duen hutsunea. Malkoak masailetan behera doaz, aitarekin elkartzeko unea noiz helduko zain.

Jon Eugi

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
T- 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide mformatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGINTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENOARIA Asier Orbea GENIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBUZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli UEIGUON KOLABORATZAILERAK Jasone OSO1'0, Ainhoa Lodosa, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduarne Bilbao, Golzon Ardeta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanilo Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garalaren liburutik INPRIMATEGIA Gelt1 KOOG. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA
1111.1.1 01.6.11.1 11 11 11

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



kutxa

DANOBAT
LIAOU NAS 11.11.1ENT.9

GRUPO DANODITR

gpmgrA


Urasandiko bizilagun batek ondorengo kexa ekarri digu Barren-
era: "Duela egun batzuk, 22, 24 eta 26 portaletako fatxadatik,
adreilu zati batzuk erori ziren lurrera. Eskerrak ez zela une
horretan kotxerik edo pertsonarik pasatu, bestela, zerbait larria
gertatuko zen. Bizilagunok bilera bat egin genuen, eta fatxada
konpontzea erabaki genuen. Edozein istripu ebitatzeko, Udalari
baila batzuk jartzeko eskatu genizkion, eta gure
erresposabilitatea zela esanez, gure eskaerari ezezkoa erantzun
zioten. Hainbeste kostatzen al da, bizilagunen arriskua gutxitzeko
baila batzuk jartzea? Presupuestoa onartu artekoa zen bailak
jartzea, gero, kontratatutako enpresaren esku geldituko litzateke
arriskuen prebentzioa".

Urasandiko auzokide batek, eskailera mekanikoetan pintadak
egin dituena salatu nahi du: "Ez dago eskubiderik. Norberaren
ideiak adierazteko edozein lekutan pintadak egitea ez da biderik
onena. Lekuak zikindu eta zatartzea besterik ez da lortzen modu
horretan".



Emakume batek Inazio Bereziartua Musika Eskola txalotu
nahi du, kurtso bukaerako kontzertuak oso politak izan
direlako: "Maiatzaren 27tik 30era bitartean, gure haur eta gazteak
protagonista izan diren kontzertuak eskaini dituzte. Txalo bero bat
beraiezat, baina batez ere, ibravo! handi bat Herriko Antzokian
eskainitako ikuskizunagatik. Maite Janeioren akordeoi taldeak,
beste instrumentu batzuen laguntzaz eta korua eta dantzarien
koreografiak eskainitako emanaldia benetan izugarria izan zen.
Seguru gaude, ez dela lan erraza izan hori guztia koordinatzea.
Aupa Maite! Zorionak guztioi".

Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi dizkizue maiatzaren
31n ospatu genuen Ikastolaren Egunean lagundu eta parte
hartu zenuten guztioi eta bereziki: Altxolako Ura, Bankoa,
Belaustegi jatetxea, Beristain edariak, Debape, Dori Urdaitegia,
Eroski, Jai Alai Taberna, Katei Edariak, Lanbroa Kafetegia,
Larrañaga Autoeskola, Mintxeta Taberna, Modesto Cid, Mugape,
Telepizza, Txiriboga Taberna, San Lorentzoko Elkarte eta
Udaletxeko Kultura Sails. Bestalde, irakasle talde batek
DBH3ko ikasle eta gurasoak txalotu nahi ditu Ikastolaren Eguna
oso ondo antolatuta zutelako.



XVIII. GALIZIA EGUNA

eta bulera arte Galiziakc



risotAumr

Ebreak 25 urte bete ditu .Arten, eta 25. urteurrena aiizakiaizat hartuta, Gako Eguna Elgoibarren antolaizea erabaki dute. rain Orte, Bizkaia eta Araban ospaiu izan da beti eguntiau, beraz, Elgoibarkoa izango da Gipuzkoan lehenengo aldia. Xixilion kalea izango da aarten lialdiaren eszenatolcia. Antolatzailek sekulako egrtaraua antolaiu dute, eta ez da as-

pertzexo unerik izango. Zahar eta gazte, emakume eta gizon, denentzat egokitutako ekitaldiak izango dira ikusgai. Honekin batera, Galiziako produktu pikoak dastaizeko aukera izango dute bertara hurbilizen diren gudiek. Isaac Munin, Elgoibarko Galizia Kultur Etxeko presidentearekin hitz egin dugu, eta jaialdiari buruz hiiz egiteaz gain, beste hainbat bilxikeria ere, kontatu

Joan zen igandean, ekainaren leian egin zuen Euskadiko Galizia Kultur Etxeen Ermandadeak jaialdiaren aurkezpena udaletxeko Pleno Aretoan. Festa handia izango dela azaldu zuten, eta aurreko urteetako esperientziak ezagututa, 50.000 eta 100.000 lagun inguru espero dituzte. Euskal Herriko Galizia Etxe bakoitzak autobusak antolatu ditu, eta kotxez ere, jende ugari etorriko omen da Elgoibarrera. Guztira, 74. 366 euroko aurrekontua dauka jaialdiak. Bi karpa egongo dira: 500m²-ko Pulpeiroaren karpa handi bat, eta 100m²-ko beste txikiago bat. Galiziako produktu tipikoen erakusketa eta salmenta postuak egongo dira, besteak beste, pulpoa, enpanadak, txurraskoak, pastelak, ardoa...

Ez da lan erraza izan Elgoibarko gailegoentzat jaialdiA antolatzea.

Elgoibarko Galizia Kultur Etxeak 48 bazkide ditu gaur egun, eta Euskal Herriko gainontzeko elkarte gailegoekin konparatuz, oso txikia da. Isaac Munin Elgoibarko Galizia Kultur Etxeko presidenteak esan digunez, oso gogorra da honelako ekitaldi bat antolatzea: "Mila gauza lotu behar dira, eta hala ere, zerbait gaizki aterako denaren beldurra daukagu. Ilusio handiz gabiltza lanean, eta gainera inguruko herrietako Elkarteek lagunduko digute, eta herritarrek ere bai".

"25 urte hauetan Elgoibarko herriak gurekin izan duen jarrera eskertu nahi dugu".

Isaac Illamin

1980. urtean Euskal Herriko Galizia Etxe guztiak batzen hasi ziren, Ermandade bat osatzeko ideiarekin. Helburua, urtero Euskal Herri mailan ospakizun handi bat antolatzea zen. Honela, 1985. urtean sortu zen Euskadiko Galizia Kultur Etxeen Ermandadea, eta urtebete beranduago egin zen estreinako aldiz, Bilboko Erakustazokan Galiziako Eguna Euskadin jaialdia. Orduetik aurrera, hutsik egin gabe urtero antolatu da, jaialdia, eta aurtengoa izango da Gipuzkoan egiten den lehenengo aldia.

LIRTE GOGORRA GALIZIARENTZAT

Isaac Muninekin berbetan, ezin ginen ahaztu Prestige itsasontziaren hondamendiaz: "Oso gogorra izan da gailego guztientzat, baina hemendik ez dugu benetan han gertatutako hondamendia bizi". "Nunca Mais-Sekula ez berriro" plataformak antolatuta, Galiziari laguntzeko jaialdia antolatu zuten otsailean. Isaac Muninek esan digunez, ahal izan duten moduan bidali dute laguntza Galiziara: "Dirurik ez dugu bidali, baina material dezente bidali diegu".

Itsasoak oraindik ere beltz xamar dauden arren, asteburu honetan plazaratuko dituzten produktuek ez dute txapapote ukiturik izango, beraz, Xixilion aldera hurbiltzen direnek, kalitate onean aurkituko dituzte Galiziako produktuak.



Euskadiko Galizia Etxeen Ermandadea jaialdiaren aurkezpenaren ostean.

ELISKADIN

Eguna ospatulo da Sigmako IRclustrialdean



ISAAC MuNin
Elgoibattb

ELOOIBARKO CIALIZIA KIILTIIR ED<EAREN HISTORIA LABURRA

25 urte pasatu dira dagoeneko Elgoibarko Galizia Kultur Etxea sortu zenetik. Elkartek txikia da, baina ez da oharkabeen pasatu Elgoibarren. Zarata handiegirik atera gabe, bere lekua aurkitu du Galizia Kultur Etxeak elgoibartarren artean. 1982. urtean hasi ziren "Dia das letras galegas" antolatzen, eta Isaac Munin Galizia Kultur Etxeko presidentek esan digunez, urte hauetan guztietan elgoibartarrek eman dieten erantzuna ezin hobea izan da: "Ia urtero euria egiten du, eta hala ere, herritik jende ugari etortzen da Urasandira. Jendeak asko lagundu digu, beti eskaini digute beren babesa, eta eskerrak eman nahi dizkiegu".

Hasierako garaia ere gogoratu dizkigu Isaac Muninek. Gaur egun Urasandin daukate Elgoibarren bizi diren gailegoek beraien egoitza, baina garai batean, Estazio Tabernan biltzen ziren: "Gero eta gehiago ginen Estazio Tabernan biltzen ginen gailegoak, eta Dositeo Fernandezek ideia izan zen beste hainbat herritan zegoen moduko Galizia Etxe Kultural edo Gastronomikoa sortzea". 136 lagunek eman zuten hasieran izena. Lokalak begiratzen hasi ziren, propaganda egin, eta bazkide bakoitzari diru kuota bat ordaintzea tokatu zitzaionean, jendea gutxituz joan zen: "38 lagun izan ginen azkenean Elgoibarko Galizia Kultur Etxearen sortzaileak, eta gaur egun haietako zazpi besterik ez gara gelditzen bazkideen artean".

JAIEN EGITARALIA

EKAINAK 6, OSTIRALA

Txapligu jaurtiketa. Elgoibarko Alkateak jaiari hasiera emango dio.

19:30 Galiziako itsasadarretako muskuluen dastatzea. Doan.

20:3 "Ritmo Joven" orkestraren emanaldia.

23:00 Kepa Junkeraren kontzertua.

00:30 "Ritmo Joven" orkestrarekin dantzaldia.



EKAINAK 7, LARUNBATA

Galiziako produktuen dastatzea eta salmenta.

11:30 Ermuko eta Eibarko Galizia etxeetako gaita eta dantza taldeen kalejira.

12:00 Herri Kirolak.

17:00 "Chave" lehiaketa (gizon eta emakumeentzako)

17: II. Filloa lehiaketa eta III. Enpanada lehiaketa.

Haritz Dantza Taldeak ongi etorria emango dio Irixoko Gaita Taldeari.

Dario Xohan Cabanak idatzitako liburuaren aurkezpena Alfonso Blancoren eskutik.

20:00 "Ritmo Joven" orkestrarekin dantzaldia.

23:00 "Uxia" kontzertua.

00:30 "Hora das Meigas". Druida Handi batek egindako Queimada bikaina.

01:00 "Ritmo Joven" orkestrarekin dantzaldia.

EKAINAK 8, IGANDEA

9:30 Galizia etxeetako talde folklorikoen kalejira.

10:30 Meza Nagusia San Bartolome Parrokian.

11:30 Irixoko Gaita Taldearen emanaldia.

11:30 Galiziako Ardo Beltzen III. dastatzea.

12:30 Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua.

13:00 Agintariei ongi etorria.

17:30 "Irmandade de Centros Galegos en Euskadi" delakoa osatzen duten Galizia Etxeetako gaita eta dantzarien folklore jaialdia.

Bihar, ekainak 7, irekiko dituzte Mintxetako aire libreko igerilekuak lazko denboraldian 7.000 lagunek erabili zituzten igerilekuak

Mintxetako aire libreko igerilekuak bihar, ekainak 7 irekiko dituzte, eta datorren irailaren 14ra arte egongo dira irekita. Astelehenetik igandera egongo dira zabalik, goizeko 11:00etatik iluntzeko 20:00ak arte. Iazko denboraldian 7.000 lagunek erabili zituzten Mintxetako igerilekuak, 6.000 bazkide eta 1.000 eguneko sarrera ordainduz. Bestalde, uztailaren 19an bildu zen jende gehien; 350 pertsona.

Honekin batera, aipatu beharra dago, Kontxi Maza elgoibartarra izango dela datozen 4 urteotan Mintxetako tabernako arduraduna. **Gaur arratsaldean** inauguratuko du taberna, eta luntxa izango da 19:00etatik 21:00etara.

Prezioak

Egun baterako sarrera 3,15 eurokoa izango da 18 urtetik beherakoentzat, eta 4,70 euro 18 urte baino gehiago



Uztailaren 19an 350 pertsona bildu ziren Mintxetako igerilekuetan.

Uztailaren 19an 350 pertsona bildu ziren Mintxetako igerilekuetan.

dauzkatenentzat. Bestalde, 3 urte arteko umeen eta Kirol Patronatuko bazkideen sarrera dohainekoa izango da.

Honetaz gain, interesatuek denboraldi osorako bonoa egin dezakete Olaizaga Kiroldegian edo Mintxetako igerilekuan bertan.

BONOEN PREZIOAK

<18 urte	33, 85 euro
>18 urte	37, 31 euro
Julillatua >80	33,85 euro
Umbertsitaria	34,5) euro
Fmnidarra	86, 85 euro
Ezinduak	30, 55 etre
Kanpotar banakakoa	44, 20 euro
Kanpotar tamliarra	71, 85 euro

Einbiou-k Udal Hauteskundeen balorazio positiboa egin du

Zinegotzi berrien izendapenean bi zinegotzi erreklamatu dituzte

Maiatzaren 30ean eskainitako prentsaurrekoan azaldu zuten, Einbiou-ko kideak oso pozik daude Udal Hauteskundetan lortutako emaitzarekin, eta eskerrak eman nahi dizkiete babesa erakutsi dieten elgoibartar guztiei.

Udalari bi gauza salatzen dizkiete. Ifiaki Odriozolaren hitzetan, "Tribunalak gu ilegalizatu aurretik, panel elektoralak gure izenik gabe jarri zituzten, gure kanpaina egiteko ez digute megafoniarik utzi, eta kalean jartzen genituen kartel guztiak kendu egiten zituzten".

Aurrera begira, Einbiou Plataformak ez duela udaletxe berria onartuko azaldu zuten: "Gu ilegalizatu gaituzten PP eta PSE-EE alderdi faxistek udaletxean lekua daukate, eta guk ez. Ez da udaletxe

demokratikoa, eta ez dugu onartuko".

Datorren ekainaren 14an izendatuko dira zinegotzi berriak, eta Einbiou-koekin beren botoekin lortutako bi **zinegotziak** erreklamatu dituzte: "Udalari definizio politikoa eskatzen diogu, legalitatearen alde edo demokraziaren alde jartzeko. Herriko bigarren indarra ezabatu nahi dute, baina gure bi zinegotziak erreklamatu ditugu".



Juan Karlos Markos eta Itziar Odriozola Kimetz Elkartean eskainitako prentsaurrekoan.

Azkenik, udaletxetik edo kanpotik, herriaren alde lanean jarraituko dutela azaldu zuten.

"Elgoibar" bideoa aurkeztu zuten asteazkenean, hilaren 4an, Kultur Etxean

"Elgoibar" bideoa B-30 enpresa bizkaitarrak produzitu du, Elgoibarko Udalaren laguntzaz. Bideoak 25 minutuko iraupena dauka, eta Elgoibarko iragana eta oraina biltzen ditu. Bideoa euskaraz eta gazteleraz editatu dute.

B-30 enpresako teknikariek urtebete inguru pasatu dute gure herria bisitatu eta bertako ekitaldi garrantzitsuenetako irudiak grabatzen. Herriaren kokapen geografikoa, biztanleria, kultura, festak, industria, kirolak... jaso dituzte bideoan.

B-30 enpresak Euskal Herriko herri guztiak batuko dituen Barnetik Barnera dokumentala osatzen ari dira, eta horren atal bat izango da "Elgoibar" bideoa. Dagoeneko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat



Alberto Urigoitia, B-30 produkzioakeko errepresentantea eta J.M. Oruesagasti, Elgoibarko alkatea.

herriren bideoak eginak dituzte. "Elgoibar" bideoa edo beste herriren batekoa eskuratu nahi dutenek, herriko zenbait dendetan erosi ahal izango dute.



Mila Astigarraga eta Ainara Urkidi izan dira Merkatu Plazako zozketaren irabazleak

Merkatu Plazako dendariak Gabi jatetxean bi bikoterentzako afariak zozketatu dituzte hilabete honetan, eta Mila Astigarraga eta Ainara Urkidi izan dira irabazleak. Datorren hilabetean, 60 euroko lau txeke zozketatuko dituzte. Bide batez, gogorarazten dizuegu, Merkatu Plazak udako arratsaldetan ordutegi berezia izango duela, hau da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara irekiko dute.

1953an jaiotakoek urrezko ezteiak ospatu zituzten

Joan zen larunbatean, maiatzaren 31n, 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek urrezko ezteiak ospatu zituzten. Goizean meza izan zuten, ondoren argazkia atera zuten eta

Biardana Elkartearen luntxa izan zuten. Harzubi jatetxean izan zuten bazkaria. 122 lagun elkartu ziren, eta antolatzaileek oso ondo pasatu zutelako kontatu digute.



11 odol emaile omenduko dituzte

Debarroko Odol Emaileen Elkarteak 11 odol emaile elgoibartar omenduko ditu datorren ekainaren 22an. Hainbat urtetan borondatez odola ematen duten herritarrak saritzea da omenaldiaren helburua. Omenaldia Arraten ospatuko da. Meza izango dute eguerdiko 12:30etan, eta ondoren anaiarteko bazkaria. Sariak, bazkal ostean banatuko dira. 50 alditik gora odola eman dutenek urrezko intsignia jasoko dute, eta 25 alditik gora donatu dutenek zilarrezkoa. Hona hemen intsignia jasoko duten elgoibartarren zerrenda:

Urrezko intsignia:

Jesus Castañares eta Gonzalo Gallego.

Zilarrezko intsignia:

Maria Pilar Gurrutxaga, Jesus Urizar, Jose Daniel Canales, Jose Antonio Garcia, Jose Astigarraga, Juana Muruamendiaraz, Jose Garaizabal, Pedro Zapata eta Alberto Agirreazaldegia.

Balkoiak apaintzeko II. txapelketa

Iazko jardunaldiko arrakasta ikusirik (500 pertsona baino gehiago), Debegesak Debabarreneko balkoiak apaintzeko II. txapelketa antolatuko du. Helburuak etxebizitzak erakargarriagoak egitea, eta ingurugiroari buruzko kontzientziaioa areagotzea. Lore banaketa, datorren ostegunean, ekainak 12an, egingo da. Partehartzaileek beren leiho, balkoi edo terrazak apaindu beharko dituzte, eta epaileek dotoreenari emango diote saria. Herri bakoitzeko irabazle bat izango da, eta loregintzan gastatzeko 100 euroko txekia jasoko du. Bestalde, eskualde mailako irabazleak, bi pertsonentzako afaria irabaziko du, eta nekazal etxe batean asteburua pasatzeko aukera izango du.

Ekainaren 15ean hasiko da hondartzako bainu denboraldia,
Prestigen hondamendiaren arrastoak agerian daudenean

AUSARTUKO AL ZARA EUSKAL HERRIKO HONDARTZETAN BAINATZEN?



LORE LASPIUR

35 urte, irakaslea

Hondartzak ezin dia ondiokan garbi egon, eta 15erako ere ez ditzuzte garbitxuko. Turismua bultzatzeko garbi daudela esango dabe, baina nik neurrixak hartuko ditzut bainatzeko.

JAVIER IRIONDO

38 urte, mekanikoa

Bai, printzipioz bainatzeko asmoa daukat. Ura oso beltz ikusten ez badut, lasai bainatuko naiz. Hondartzara joan arte ezin da jakin zer aurkituko dugun.



AMAIA EZENARRO

38 urte, irakaslea

Bainatuko naiz. Beldurrik ez daukat, baina kezka bai, umeengatik, batez ere. Azala delikaua dakabe, eta umiekin kontuz ibili biharko gera.

ANDRES PEREZ

37 urte, komertziala

Ez zait gehiegi gustatzen ura, baina lasai bainatuko naiz. Hondartzak ireki behar badituzte ez dut uste hain zikinak egongo direnik.



IÑIGO EGAÑA

38 urte, mankomunitateko langilea

Bai, bainatuko naiz, baina kontu haundixakin. Ondiokan hondarretan eta harkaitz artian txapapote asko dao, eta badaezpada kontuz ibili biharko da aurtan.

JULI SASIAIN

42 urte, administraria

Impresio piskat emango dia uretan sartziak. Arrantzaliekien pasatzen dana ikusitxa, argi dao ura zikina dauala, eta hondarretan bertan ere, txapapotia dao.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN 1/01 OEKO BEHERAPENA

lift — teauln 16 unte dete awnetd eta
440,~ diptk4 te1464, 18 unte dete atoned

ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

Belaustegi Baserria

JATETXEA

4. urteurrena

Z-1kerrak emam maki izkizue! denoi zueli LachmEzagEik
Z-skerrik alko
1-skeyri alko lezero
€Ea egkerrik asko kolekzem u Ezei dtzues desoi



Menu berezia

Ekainaren 1etik 15era arteko astean ospatzeko

Etxeko aperitiboa

Antzara folearekin eginiko moussea

Belaustegi entsalada

Otarraixkak plantxan

Txahal solomilloa

~ ~ ~ ~ ~

Txokolate fluidoa

Kriantza eta kafea 29,50 € (+bez)

(Larunbat gabeen izan ezik)

MAIATZA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

Hil PAVIVIN

Maria Luisa Ibarluzea,
74 urte, maiatzak 2

Jose Ramon Arozena,
87 urte, maiatzak 13

Jesus Urbieta Etxeberria,
78 urte, maiatzak 13

Teodora Arakistain Zubizarreta,
94 urte, maiatzak 16

Pedro Alvarez Rubio,
78 urte, maiatzak 18

Pako Muguruza Mendikute, 83
urte, maiatzak 22

Maria Madera,
64 urte, maiatzak 25

Jose Arrillaga Irusta,
90 urte, maiatzak 26

F7VONT711!.<

Igor Raya Peña eta
Nerea Rodriguez Fernandez
Maiatzak 10

Jesus iriondo Bizcarrondo eta
Maite Maiora Arrizabala
Maiatzak 24

J.C. Fernandez Martinez eta
Montserrat Borreguero Blanco
Maiatzak 24

JA10TAKOAK



June Rodrigo
Morales
Maiatzak 13
Javir eta Sonia



Lander Fernandez
Aranda
Maiatzak 21
Jose Abel eta Rosa
Maria



Garazi Mendieta
Eizagirre
Maiatzak 21
Femando eta Maite




Nagore Guardia
Iglesias
Maiatzak 26
Domingo eta
Carolina

ETXEBERRIA

meta zervitzud
neiTh - nrpr Tvri

KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

IRAKASLEARI AZTERKETA

ABI
ASA

EUSKARAKO IRAKASLEA



- **1 Ikasle garaian gorroto zenuen ikasgaia?**
Matematika
- **2 Azterketetan jarri dizuten erantzun bitxiena?**
A, bai! Sinestesia zer zen galdetu eta sinistu ezin dan gauza bat dala erantzun zian batek
- **3 Ikasleak zigortzen al dituzu?**
Normalian beraiek ni zigortzen naute! Ez, saiatzen naiz ez zigortzen.
- **4 Eta zu zigortzen al zintuzten?**
Bai
- **5 Beti jakin nahi izan duzun eta oraindik ez dakizun zerbait?**
Irakasle ona izaten, hori bai dala oso zaila
- **6 Zer duzu nahiago, ikastea ala irakastea?**
Oo lotuta daude, irakatsiz asko ikasten da
- **7 Inteligentzia, lana ala zortea?**
Bat aukeratzekotan lana, seguruena da
- **8 Inoiz erantzun ezin izan duzun galdera bat?**
Ba... Ikasliek irakasle zergatik sartu nintzan galdetzen didatenian ez det jakiten zer erantzun
- **9 Bete gabeko amets bat?**
Bat bonbero izatia. Baina oindik ametsetan segitzen det, espero det oindik ametsak betetzia

NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



IONE ARIZNABARRETA
ama

1. Zerk egiten dizu ilusia?
2. Udarako planik onena?
3. Gezurrik esaten al diozu amari/alabari? Zein?
4. Abestirik maiteena?
5. Jolasik gustukoena?
6. Zer egingo zenuke ama/haurra bazina?
7. Janari gustukoena?
8. Zeri diozu beldurra?

- 1 Alabak egunero pozik ikustiak
- 2 Danok batera nunbaitxera jutia, batera bada berdin jata nora
- 3 Bai, gizur txikixak. Adibidez, liburutegixan premixo bat irabazi zaban ta ez genion esan, engañauta eraman genduan sari banaketara.
- 4 Benito Lertxundiren "Kantaita"
- 5 Puufl!, pila bat, ludoketan lan itxen dot!
- 6 Prekuopaziorik gabe jolastu
- 1 Txuleta
- 8 Ezer gutxiri. Suari, igual.



HAIZEA BERISTAIN
aiaba

- Errealak liga irabaztiak 1
- Furgonetan Nafarroara jutia 2
- Bai, batzutan. Enaiz gogoratzen 3
- Shin Chan-en kanta 4
- Altxorraren bila 5
- Nik nahi deten arropa jantzi 6
- Espagetixak, San Jakobuak eta frituak
- Lapurreri 8

PclriShk nthorren *artista 6at* nalz ni...

L.H.ko 5. B maila
Herri Eskola



7iso 6ukae

*a9aude
ketatso 6ukaezan
ikusit beita7 leto
emaitzen asoe/art.
Saiatu 9aza eta
Jkasi 9ebiena
Oponak kartztea da
gattZ421:k onena*

*Sostlazten mailako
mutil eta neskak
ondo ibili eta
utzit levo kezkek.
?Sostatak idatzi ta
Asko di6atitu
gu7e ol-teni Sskola
ez 9e7o aliaztu.*

Andeteñoari


*Kan Atzna loaz
Settso 6at edo 6i
gato loizean elilak
andaelooi.
lakatsi nalii duela
iluditzeb beti
6aina ernakumea
joan zaitzez emeki.*

*Citae andadioa
konika tddi
eta gudrolainean
iiehtiojuak 9e7i.
Slun batzutan lexo
katua diudi
baina sarzja9otan
Skaitza i7itsi.*

lehiakekl lehiakei-a

lehiakelt lehi

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefona:

111: urtētik bēherakoē'i 2lizenclutako lekiaketa.

7ozketa hilaren amaieran e in o da

XVIII. GALIZIAKO EGUNA EUSKADIN

Zatozte danok Sigmara ekainaren 6, 7 eta 8ani

*Galizla o ro uktilen a.stat2ea
itrno Joven Orkestra
Kepa Junkera
Flerri kirolai
Etxe...*


(Ponte do Milenio, Ourense)

(Olasoko ataria, Elgoibar)



11-1-11 • 11101

Antolatzaileak: Euskadiko Zentru gaileguen ermandadea.
Elgoibarko Galizia Kultur Etxea



GREBIOEN GIDA

AROTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
72 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
11 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
13- 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
17 656 78 78 59

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
z' 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
*zr 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
943 74 03 96

ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g
Tr 943 74 43 47

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
11 943 74 17 61
Tr 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
93 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
zr 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
943 75 50 62
tv 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
zr 943 74 07 89
17 608 14 30 40

PINTURAK7-

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
1T 943 74 15 52
n' 606 43 11 19-20

1PINTZA

Foruen enparantza, 4
zr 943 74 04 40
Ir 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
Tr 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
71 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
zr 943 74 09 02
Tr 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
1Er 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
Ir 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
Tr 943 74 29 87
17 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabilioia
Tr 943 74 30 94

DBH 4. mailakoel agurra egin zitzairen joan zen ostiralean, maiatzak 30, Pilar Ikastetxean

A rratsaldeko 19:00etan hasi zen DBH 4. kurtsoko ikasleei agurra emateko ekitaldia Pilar Ikastetxean. Ikasle eta gurasoak ikastetxeko gimnasioan bildu ziren, eta meza izan zuten lehenengo. Abesti batzuk abestu ostean, diploma banaketa egin zuten. 14 ikaslek jaso zuten

kurtso bukaerako diploma, eta banaketaren ostean, talde guztiak abesti bat abestuz bukatu zen ekitaldia. Amaieran ikasle eta



gurasoak bilduta, kurtso bukaerako argazkia atera zuten, eta ondoren, luntxa izan zen ikastetxeko patioan.

Elgoibarko Herri Eskolak "Plazaratze Eguna" ospatu zuen joan zen maiatzaren 31n



Plaza Handia izan zen ikasle, guraso eta irakasleen bilgunea, eta guztientzako ekitaldiak izan ziren. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak antolatutako tailerretan hartu zuten parte: Eskulanak egin, marraztu, eta aurpegia margotzen aritu ziren. Bestalde, marrubizko eta platanozko batidoak egin eta dastatzeko aukera ere, izan zuten. Hankapaloek ere, izan zuten beren momentua, eta trikitilariekin batera animatu zuten goiza. Irakasleek salda eta txorizoa banatu zituzten, eta beste postu batean, Euskal Eskola Publikoaren kamisetak erosteko aukera izan zen.

Ikastolaren Eguna ospatu zen joan zen larunbatean, maiatzaren 31n

Goizean, "Altxorraren Bila" ibili ziren ikasleak, eta ondoren, olinpiadak izan zituzten.

Haur Hezkuntzako umeentzako jolasak, eta tailerrak ere antolatu zituzten, eta eguerdi partean, Ikastolako Errazu Bertso Eskolako kideek bertso saioa eskaini zuten. Bazkal ostean "Ondo pasa Tomasa" antzerkia ikusteko aukera izan zuten Haur Hezkuntzako ikasleek. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek, aldiz, olinpiadetan hartu zuten parte. Honetaz gain, Realaren partidu bat ikusteko bi sarrera eta Belaustegi jatetxean bi pertsonentzako afaria zozketatu ziren. Irabazleak Lidia Bakaikoa eta Fidel Gomez izan ziren.



Europako Batzordeak ebaluaketa positiboa egin dio IMHren "Virtool" proiektuari

Joan zen maiatzaren 9an, Europako Batzordeko jakitunen ebaluatzaile ordezkari batek, IMHk martxan jarri zuen "Virtool" proiektua balioztatu du. Proiektua aztertu eta arlo desberdinei buruzko galderak egin ondoren, jakitunek bere oniritzia eman zioten proiektuari.

"Virtool" proiektua datorren azaroan amaituko da. Bitartean, "Virtool"-eko partaideek (Alecop, IMH, ACM, Cadware, CEIT, SOMAB, TANGRAM, TUD, UHH) proiektuaren hobekuntzan jarraituko dute, bere hedapena merkatuan zabalagoa izan dadin.

IMHk II. Bikain Bilkurak egin ditu bideokonferentzia bidez

Joan zen maiatzaren 20an, II. Bikain Bilkurak egin ziren IMHn, Lanbide Heziketarako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak bultzatuta. Bideokonferentzia bitartez egin ziren saioak, 4 egoitzetako gela digitaletako partehartzaileak elkartzuz: IMH (Elgoibar), Mendizabala (Gasteiz), Nicolas Larburu (Barakaldo) eta Tolosaldea (Tolosa).

IMHri dagokionez, egoitzen koordinazio teknikoa egin du, konexioaren zailtasunei aurre eginez, birusik eta etenik gabe. Bestalde, Ikasketa Buruak "Ikasgune" aplikazioaren aurkezpena egin du, ikasgelari aplikatutako baliabideak optimizatze eta ikasleari jarraipen pertsonalizatua egiteko.

Triska Dantza Taldearen kurtso bukaerako jaialdia ekainaren 12an

Elgoibar, Mendaro, Deba eta Eibarko 100 ikaslek baino gehiagok hartuko dute parte

Triska Dantza Taldeak 2003ko dantza kurtso bukaerako jaialdia eskainiko du ekainaren 12an, ostegunean, Herriko Antzokian (20:00). Guztira 100 ikaslek baino gehiagok hartuko dute parte ordubeteko iraupena izango duen saioan eta 12 dantza saio ikusteko aukera izango da. Koreografia gehienak Josu Mujika irakasle, dantzari eta koreografo elgoibartarrak prestatuak dira. Triskak Elgoibarren, Mendaron, Deban eta Eibarren dituen



Hainbat dantza estilo ikusiko dira jaialdian.

ikasleek hartuko dute parte jaialdian. Elgoibartarrak 35 izango dira hiru adin multzotan (3-12 urte) banatuta. Mendaroan 22 izango dira, 32 debatar eta 23 eibartar. Guztiek ere hainbat dantza estilo: klasikoa, modernoa, jazz-a... ikusteko aukera emango diete ikusleei. Sarrerak bi euro balio ditu eta Pitxintxu dendan eskuratu daitezke. Bestalde, Triska Dantza Taldearen izena eman nahi izanez gero 943 82 01 21 telefonora deitu eta Miriamez galdetu.

Txomin Mujikak eta Gorka Regilek La Hayako Musika Jaialdian hartu dute parte



Txomin Mujika eta Gorka Regil musikari elgoibartarrek La Hayako (Holanda) Musika Jaialdi batean hartu zuten parte pasa den maiatzaren 16an. Munduko hainbat lekutako musikariek hartu zuten parte jaialdian: India, Egipto eta Irlandatik joandakoak, besteak beste. Txomin Mujikak azaldu digunez Elgoibarko folklore jaialdia baino xumeagoa edo txikiagoa zen eta 5 lagunek osatutako taldea joan zen Holanda aldera, "Kimetz eta Eneritz

azkoitiar dantzarixak eta Garikoitz Mendizabal, Euskal Herriko txistu txapelduna, izan genitxun lagun Gorkak eta nik". Euskal Herriko musika eta dantzak ezagutzera ematea zen helburua, eta txistua, dultzaina, alboka eta txirula izan ziren erabili zituzten instrumentuak. Entzuleak harrিতa laga zituztela aitortu digu, "gure ikuskizunaren estilua oso desberdina zen beste taldeenekin konparatuz, erritmo bizixaukua, eta jendiari asko gustau jakon".

I. URTEURRENA

2002ko ekainaren 5ean, 87 urte zituela hil zen **ABDON MARTINEZ PASCUAL**en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** du, maiatzaren 31ean Madalako kaperan zaldu zineten guztion presentzia.



Jubenilen taldeak Euskadiko Areto Futbol Txapelketa irabazi du

Espainiako Txapelketa jokatu du ekainaren 13an



Jubenil mailako San Pedro areto futbol taldeak Euskadiko Areto Futbol Txapelketa irabaztea lortu du asteburu honetan, Arabako Aitziniega taldeari irabazi ostean. Bi partidu jokatu dituzte Arabako txapelketa aurka. Lehenengoa zapatuan jokatu zuten Olaizaga kiroldegian. Elgoibartarrek 4 eta 2 irabazi zuten. Partidu bikaina jokatu zuten eta gol gehiagoko alde merezi izan zuten markagailuan. Itzulerako partidua Aitziniegan jokatu zuten eta 3 eta 2 galdu arren, txapelketa izatea lortu zuten elgoibartarrek. Arabar zaletu sutsuen presioari eta epaileari aurre egin behar izan ziotela aitortu digute, baina beraien helburua lortu zuten. Gauzak horrela, ekainaren 13tik 15era bitartean Euskadi ordezkatu du San Pedro taldeak Geronan jokatu den Espainiako areto Futbol Txapelketa. Elgoibartar areto futbolak etorkizuna ziurtatuta duela dirudi.

EMAITZAK

Esku pilota

Debarroko Txapelketa

Bergara 4 - Lagunak 22 (Kad.)

Aretxabaleta 13 - Lagunak 22 (Jub.)

Lagunak Txapelketa

F. Conde 18 - B. Iriondo 8 (Benj. Aurre.)

F. Conde 18 - M. Gurrutxaga 5 (Benj. Aur.)

R. Ortuoste 18 - E. Guemez 8 (Benj.)

A. Gurrutxaga 18 - R. Ortuoste 16 (Benj.)

J. Ibarluzea 18 - M. Arrieta 14 (Benj.)

J. Mugerza 18 - A. Guemez 16 (Kad.)

M. Portu 18 - J. Mugerza 6 (Kad.)

I. Txurruka 18 - I. Ugalde 4 (Kad.)

Eskubaloia

Gipuzkoako Kopako tinalak

Pagoaga Elg. 27 - Leizaran 6 (Kad. nesk.)

Cometel Elg. 24 - Akaba Bera Bera 17 (Jb. Nk.)

Pneumax Elg. 12 - Arrasate 9 (Jub. mut.)

Egia 13 - Pneumax Elg. 15 (Jub. mut.)

Areto Futbola

Euskadiko Txapelketa

S. Pedro F.S. 4 - Aitziniega de Alava 2 (Jub.)

Aitziniega F.S. 3 - San Pedro F.S. 2 (Jub.)

Federazio Kopa irabazi du nesken futbol taldeak

D. Elgoibar kluheko nesken futbol taldeak Federazio Kopa irabazi du. Allerruren aurka jokatu zuten finala pasa den zapatuan, hilaren 31n, Donostiako Matigoxotegi futbol zelaian eta elgoibartarrak nagusitu ziren 1 eta 0. Liga txapelketa ez dira oso fin aritu aurretik, baina Kopan ez dute areririk izan elgoibartarrek. Irene Elorza jokalaria izan da taldeko goleatzaile onena denboraldi honetan, eta Amaia Epelde, berriz, jokalaria irregularrena aukeratu dute.



Jubenilak

Bestalde, jubencil mailako mutilek ezin dira jokalaria irregularrena eta Iban Murua, izan dute Liga txapelketa irabazi. Duela 3 berriz, goleatzaile onena.

jardunaldi lortu zuten mailaz igotzea beraien taldeko lehen postua ziurtatu ostean, baina Liga Txapelketa irabazteko Dunboaren aurkako partidua irabazi beharra zaukaten. Xabi Alonsok entrenatutako jokalariek 1 eta 0 galdu zuten Dunboaren aurkako partidu erabakiorra.

Jubeniletan Unai Gasteain izan

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

It

Mandiola Egurrak S.L. .

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3¹² 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

fro>

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko aldi baterako enpresak ingeniari tekniko elektrotikoa behar du. Erref. 102062/2

Urola Kostaldeko enpresak medikua behar du. Erref. 102961/1

Durangoaldeko aldi baterako enpresak prentsarako langilea behar du. Erref. 103029/4

Durangoaldeko enpresak programadore informatikoa behar du. Erref. 102926/1

Gipuzkoako enpresak ingeleseko 12 monitore behar ditu. Erref. 103072/4

Debabarreneko aldi baterako enpresak kontserbera baterako langileak behar ditu. Erref. 101206/3

Eibar Bergara artean dagoen enpresak gasolindegirako 2 neska behar ditu. Erref. 102853/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

* Bi erizain laguntzaile gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziadunak. Tr 636 05 34 61/686 22 62 74

◆ Erreforma elektrikoak egiten ditut. Merke. a 649 92 55 90/ 943 28 00 22 (Vitorio)

* Emakumea nagusiak, edo 10 urtera arteko haurrak zaintzeko prest. a 943 74 30 04 (Elena Garcia)

◆ Emakumea edozein lan egiteko prest. a 660 69 53 03 (Marta)

◆ Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. a 626 91 49 04 (Rosa)

◆ Emakumea orduka garbiketara lanak egiteko prest. Tr 943 74 22 01 (Araceli)

◆ Emakumea bulegoak, lantegietako aldagelak edo bulegoak garbitzeko prest. Garbiketara industrialean esperientziaduna. Tr 669 22 35 27

Etxerako era guztietako konponketak egiten ditut. Tr 943 03 36 41/666 24 16 62

* Emakumea etxeak garbitu, haurrak edo adinekoak zaintzeko prest. Egun erdiz. 639 88 20 04 (Piedad)

17 urteko hiru neska ekainetik aurrera, goizez, umeak zaintzeko prest. a 656 00 83 19

Neska asteburuetan, jai egunetan eta udan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 943 12 73 07/630 52 85 19

ESKAINITZA

Ileapaindegian lan egiteko pertsona behar da. 943 74 43 88 (lan orduetan)

◆ Kamareroa behar da. 5. 943 74 42 65

* Pertsona arduratsua eta lanerako gogoia duena behar da Osintxuko latetxerako. Asteburuak bre. *B. 943 76 48 63 (Mari Jose eta Juana)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

logela alokatzen da.s. 699 91 31 69

*Logela alokatzen da. z- 943 74 18 81

◆ Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibar, eibar edo Ermuan. 71. 600 75 31 02

○ Apartamentua hartuko nuke alokairuan Benidorm-en abuztuaren. s 667 94 24 33

◆ Etxea alokatzen dut, altzairuekin. Eguzkitua eta berritua. Tr 943 74 36 46

◆ La Pineda-n (Salou) 2 logeladun apartamentua alokatzen da, ekaina, uztailea eta irailean. Hondartzako lehenengo ilandan. 660 05 62 19

*Apartamentua alokatzen da Menokan. 4-6 pertsonentzako. Erabat konpleba. 15. 902 10 32 87

*Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. z. 686 72 52 53

◆ Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariek. Bizitzera sartzeko moduan. s. 661 42 60 77

Bestelakoak

* Pertsona behar da autoa partekatzeko. Bilbora joateko ekaina eta uztailean. 7:00etan joan eta 14:15etan itzuli. 943 74 39 43 (22:00etatik aurrera)

◆ Emakumezkoaren erlojua bilatu dut Madalan. -47 943 74 27 59 (Jose Inazio Iriondo)

* San Pedroko kanpan lurrean jartzeko haur manta gorri bat utzi nuen ahaztuta joan den igandean. Jaso duenak deitu dezala. a 609 05 59 02

Neska txiki baten urrezko pultsera topatu dut. s. 943 03 38 31

Partikularrak

Lehen Hezkuntzako partikularrak emango nituzke uztailean goizez. Talde txikiak. Zr 943 74 20 94 (Yolanda)

* Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleari matematika klaseak emateko pertsona behar da. Uztailean, goizez. Ta. 626 23 75 70

◆ Euskarazko klase partikularrak jasoko nituzke bakarka. Zr 943 74 03 85

◆ Ingeles irakaslea enpresei eta norbanakoei klaseak emateko prest. 649 22 11 54

Salerosketak

◆ Rossignol markako carvin eskiak salgai. Lau urte eta 1,70m. 120 euro. s* 652 71 59 11

Trikitixa salgai. Polverini txiki, 3-4 aho-tsetakoa. Tr 676 15 74 57

Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. 13. 616 26 62 12

* Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110 cv. Zilar kolorekoa. Beti garajejan. tr 616 26 62 12

*Ford Mondeo salgai. Egoera oso onean. Merke. Er 943 74 11 08

◆ Karabana salgai. Katusa 3750. r; 943 74 21 64

• Seat toledo salgai. Egoera onean, prezio ona. SS-AK. Tr 659 55 80 79

• Peugeot 205-1.8 diesel salgai. 1997. urtekoa. v 655 74 80 07

Edertasun saloia traspasatzen da Elgoibarren. a 943 74 16 33 (20:00etatik aurrera)

Cordon, Vilarchao, c.b.

IDEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

A.1,113ERDI

ERREKADISTA

609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Paketeak
- Gestoria
- Sobreak
- Komertzioa

GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera

Elgoibarko Gazte Infarmazio Gunea Kultur Etxean.

Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461

OHARRA

Ordutegi berria

Astelehena: 17:00-20:00

Asteartea-ostirala: 16:00-20:00

Agurrak



• Zorionak **Paula**, hilaren 11n 2 urte beteko dituzulako! Familiako eta bereziki, anaia Javierren partez.



• Zorionak zure **28. urtebetetzean. Muxu handi bat Sandraren** partez etorkizuneko "Pedazo **aitatxo**"! Maite zailut.



♦ Zorionak **Mirian**, atzo **13** urte bete zenituelako. Familiako partez.



• Zorionak **panpoxal Dago** eneko 2 urte! Zu bai neska haundixa! Muxu bat Ikastolako laguntxoan partez.



• Zorionak **Joane**, asteazkenean 2 urte egin zenituelako. Etxekoan partez.



• Zorionak **Paulo!** Laztan handi bat zure 3. urtebetetzean.



• Zorionak **Ander**, hilaren 4an 11 urte bete zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Jonen partez.



• Zorionak **Ion**, ekainaren 14an 2 urte beteko dituzulako. Shin Chan txikiari, familiakoan eta bereziki Oihanearen partez.



*Zorionak **Albari**, hilaren 4an, bere lehenengo urtebetetzea ospatu zuelako. Familiakoan, eta bereziki, Angelen partez.




• Zorionak **June**, hilaren 4an urte bat bete zenuelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak **bikote**, astelehenean 3 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Mikel eta Julenen partez.



• Zorionak **Aitor**, gaur, hilak 6, 7 urte bete dituzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak **bikote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean!

EKINTZAK

Udako ekintzak

Donostiako Udalak Uda 2003 udako kirol ekintzen berri eman du. 74 kirol ekintzaren artean aukeratu daitezke: igeriketa zinkronizatua, patineta, arrantza, tai-chi, piraguismoa, surfa, arraunketa, bela, water poloa, ala delta, saskibaloia, judoa, padela, golfa, hipika, mendizaletasuna, parapentea... 16 urtetik gorakoentzat. Epea: plazak bete arte.

Auzolandegia

Aterpe-Caritasek 20 urtetik gorakoentzat auzolandegiak antolatu ditu, "ctxe-gabeen" arloan lan egiteko. Epea: ekainak 30.

IKASTAROAK

Boluntarioak

Gizartekintzak Gipuzkoako gizarte-erakunde desberdinetan parte hartzen duten pertsonei zuzendutako prestakuntza ikastaroak antolatu ditu: boluntarioak, zuzendariak... ikastaroen iraupena ekainaren 23tik 30era izango da. Epea: ekainak 16.

LEHIAKETAK

Literatura

Gasteizko Udalak haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik onenak saritzeko sariak antolatu ditu. Edozein hizkuntzatik euskarara egindako itzulpenak izan daitezke. Epea: uztailak 28.

Argazki lehiaketa

Conventio Bureauk Gipuzkoari buruzko argazki lehiaketa antolatu du. Gaia Gipuzkoako irudiak izango dira. Monumentuak, eraikin interesgarriak, parke eta paisaiak, kirola, gastronomia, folklorea, hirigintza. Gehienez 2 lan aurkeztu daitezke. Epea: ekainak 30.

LANA

Gizarte langilea

Lasarte Oriako Udalak gizarte laneko lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Gizarte laneko diplomatu titulua edo gizarte laguntzailearen titulua edo baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna izatea eskatzen da. Epea: **ekainak 19**.

Udaltzainak

Lasarte Oriako Udalak bost udaltzain lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Eskola Graduata, LHI edo baliokidea, euskarako 2. hizkuntza eskakizuna eta B motako gidabaimena izatea eskatzen da, besteak beste. Epea: ekainak 19.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
6 Zabaleta	Zabaleta
7 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
8 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
9 Ibañez	Ibariez
10 Bidasolo	Bidasolo
11 Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria
12 Fernandez	Fernandez
13 Yudego	Yudego

FARMAZIAK
ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
 8 igander Idarraga

6 BARIXAKUA

19:00 HERRI ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

22:00 ANTZERKIA

"Noches de luna llena"

Taldea: Interruptus

Gaztetxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

Sarrera: doan

7 ZAPATUA

9:30 IGERIKETA EGUNA

Olaizaga Kirolegian

Antolatzailea: Elgoibarko Igeriketa taldea

19:45 KONTZERTUA

Taldea: Arrasateko Goiko Balu

abesbatza

San Bartolome parrokian

Sarrera: doan

8 DOMEKIA

10:00 HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA

Herriko kaleetan zehar

10:30 FINALISTA EGUNA

San Pedron

11 EGUAZTENA

19:30 KOLDO LIZARRALDEREN

LIBURUAREN AURKEZPENA

"Kalegoengo frontoi zaharra"

Kultur Etxean

12 EGUENA

20:00 TRISKA DANTZA TALDEAREN

KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

13 BARIXAKUA

22:15 KONTZERTUA

"Niko & Dominika Etxart eta Robert

Larrandaburu"

Herriko Antzokian (Xiberua Garatzen egitasmoa)

AUTOBUSAK

Egunkari berriaren aurkezpena

Datorren ekainaren 14an, zapatuan, Egunkari berriaren aurkezpen ekitaldia izango da Donostiako Belodromoan. Elgoibarko Egunkariaren Aldeko Batzordeak Donostiara joateko autobusak antolatu ditu. Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eman daiteke izena (azken eguna ekainak 13). Prezioa 10 eurotakoa da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da aurkezpen ekitaldia eta ondoren "Kepa Junkera", "Ken 7" eta "Betagarri" taldeen kontzertuak izango dira.

KANPAINAK

Organu Emailearen Eguna

Alcer-Gipuzkoa Elkarteak Organu eta Ehunen Emaizaren aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatzen dihardu, beti ere transplante baten zain dauden pertsona askoren behar larria konpontzeko asmoarekin. Aurten ekainaren 4an izan zen Emailearen Eguna. Hau dela-eta ekainaren 7an eta 8an, mahai informatiboak ipiniko ditu elkarteak 30 herri baino gehiagotan. Elgoibarren Plaza Handian jarriko dituzte egun guztian zehar, nahi duena gerturatu dadin, informazioa jasotzera edo emaile egitera.

ZINE
kluba



"El principio de la incertidumbre"

Zuzendaria: Manoel de Oliveira.

Manoel de Oliveirak 193 lan estreinatu zuen bere lehendabiziko lana dokumental bat izan zen. Orduetik hona ia urtero filma berri bat plazaratzeko kemena eta sormena aitortu behar zaizkio. Filmografia luzea bezain pertsonala, bere irizpideei jarraituz modei amore eman gabe eta teknologia berriak errealizazio ordurako baztertu gabe nahiz eta bere estiloa agian ez izan oso garaikidea, Portugalarrak 95 urte ditu eta azken filma batzuetan kamera digitalak erabili izan ditu, hori bai bere zinegintzako irizpide nagusiak irauraraziz.

OSPAKIZUNAK

48ko kintoak

1948an jaiotako kintoek jai zirenetik 55 urte pasa direla ospatuko dute ekainaren 21ean, zapatuan. Parte hartu nahi dutenek 65 euro sartu beharko dituzte honako kontuan ekainaren 18a baino lehen: Euskadiko Kutxa/Caja laboral 3035 0007 23 0071028965.

KIROLA

Finalista Eguna

Domekan, ekainaren 8an, ospatuko da Morkaiko Mendizale Elkartek Finalista Eguna San Pedron. 10:30etan meza izango da eta sari banaketa 12:00etan hasiko da. Ondoren, pintxoak banatuko dira eta haur jolasak hasiko dira Atxutxiamaika Begirale Taldearen laguntzarekin. Eguerdiko 14:00etan izango da bazkaria. •

Igeriketa eguna

Elgoibarko Igeriketa Taldeak Igeriketa Eguna antolatu du ekainaren 7an, zapatuan, Olaizaga Kiroldegiko igerilekuan. Herri mailan egingo den txapelketa izango da eta 91-92,93-94 eta 95-96 urteetan jaiotako umeentzat zuzendua dago. Zaharrenak goizeko 9:30etan hasiko dira eta eguerdiko 12:30ak ingururako amaituko dira froga guztiak. Igeriketa Eguna dela-eta igerilekua itxita egongo da ekainaren 7an.

MARTMAK

Amnistiaren aldeko martxa

Amnistiaren aldeko mugimenduak, urtero bezala, Debarreneko VII. Martxa antolatu du, ekainaren 7an, zapatuan. Aurtengo leloa, "Basakeria honekin bukatu beharra dago. Torturari Stop" izango da. Kotxe karabana batek bailara guztia, Ermuatik Debaraino, goizean zehar, zeharkatuko du. Elgoibartik 10:30ak inguruan pasako da. Gero, Debatik Mutrikura oinezko martxa izango da. Han ekitaldia egin eta herri bazkaria egongo da frontoian. Azkenik, arratsaldeko 19:00etan manifestazioa egingo da.

KONTZERTUAK

Arrasateko Goiko Balu Abesbatza

Bihar, hilaren 7an, Arrasateko Goiko Balu Abesbatzak kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokiari, Itxaropena abesbatzaren eskutik. Kantaldia meza ondoren, 19:45 inguruan, hasiko da. Iñaki Maidagan arrasatearra da zuzendaria eta 16 pieza joko dituzte guztira.

Niko Etxarten kantaldia

Elgoibarko Udalaren Euskara batzordeak "Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, eta "Zuberoa Garatzen" egitasmoaren barruan kantaldi hat antolatu du ekainaren 13an, ostirala, gaueko 22:15ean, Herriko Antzokian. Kantaldi horretan Zuberoako kanta entzuteko aukera izango dugu Niko Etxart, Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu kantari zuberotarren ahotsetan. Kontzertu honetarako sarrerak (6 euro), aurrez eros daitezke Kultur Etxean goizeko 7:30etatik 14:30etara.

P. zine

KAR 111 DEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"El Americano Impasible"

6, barixakua: 22:15

7, zapatua: 19:30-22:15

8, domekia: 19:30-22:15

9, astelehena: 22:15

"El Principio de la Incertidumbre"

(Z.K.)

12, eguna: 22:15

EIBAR

Unzaga

" cago"

6, barixakua: 19:30-22:15

7, zapatua: 17:00-19:30-22:30

8, domekia: 17:00-19:30-22:30

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitzena: 19:30-22:15

11, eguaztena: 19:30-22:15

"Matrix Reloaded"

6, barixakua: 19:30-22:15

7, zapatua: 17:00-19:30-22:15

8, domekia: 17:00-19:30-22:15

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitzena: 19:30

11, eguaztena: 19:30

BARRENEK ez du gerta litezkeen emandakien aldaketan erantzukizunik.



"El Americano Impasible"

Zuzendaria: Phillip Noyce.

Antzezleak: Michael Caine, Brendan Fraser, Do Thi Hai Yen.

1952. urteko Vietnam-en girotua dago filmea, Frantziar legediari uko egin zioten urtean, alegia. Testuinguru historiko honetan hiru pertsonaiaren arteko amodio istorioa kontatzen digu. Fowler, Phuong vietnamdar gazteaz maitemindutako opiozale britainiarra da, baina Pyle, CIAko agente gaztea ere emakume beraz maiteminduta dago.

N

ir 1




A

ste honetako erretratu zahar batek laga digu. Ikus daitekeenez Debako hondartzan aterata dago 1938. urtean. Mutrikura joateko errepidea primeran nabari da. Bainu denboraldia ekainaren 15ean irekiko denez erretratu aproposa iruditu zaigu. Orduan ere ilusio handiarekin joaten ziren haurrak hondartzara, inork eramanez gero, noski. Ikus daitekeenez bainu jantziak, zerbait esatearren, oso bestelakoak ziren garai hartan. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren bainulariak ezkerretik eskuinera: Angelita Lizundia, Dorotea Mendikute (1) eta Iñaki Beristain.



ESKERTZA

2003ko maiatzaren 22an, 83 urte zituela hil zen
PAKO MUGURUZA MENDIKUTE "BERDUN"en sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



r45



ESKERTZA

2003ko maiatzaren 25an, 64 urte zituela hil zen
MARIA MADERA VINAGREren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Xiberoa garatzen egitasmoaren barnean:



NIKO ETXART

&

Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu

Ekainak 13, ostirala
22.:15ean
Herriko Antzokian

Sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxean (goizez)
6 euro



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kolxerako B ogiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Orden

zf eoria lasteko gela berria!



ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Te . 943 742 720
20870 ELGOIBAR


Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

D Sstondo. S.L.

EDARI BANATZAILEAK

Elustondok aholkatuta



Zilvid o7Cno eta
Alatavzoako ///tauiuj's de Valca7los
a7do

Jdiaquez, `Zavid o7eno
eta Seño7io 747aco
wzteko a7do beltzak



getwziako 74/zpu7ua
trakolin Peskoa



Sadaizano 2)avid o7eho eta
Alatavzoako /1/(aizqu& de 29atca7tos
a7do txu7Lak

Zdvid o7eno eta
Mauittis de Valca7tos
kw antzak



- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Orujoak / Afilador orujoa
- Kontserbak